



Ostegun honetan, abenduko udal-bilkura baino lehen, hamarka pertsonek bat egin dute Barakaldo Naturalak deitutako kontzentrazioarekin. Kontzentrazio honen bitartez Hegoaldeko Tren Saihesbidea proiektuaren etetea aldarrikatu dute. Zentsu honetan eztabaida publiko bat aldarrikatu dute eta proiektuaren inguruko azken erabakia herri galdeketa batekin hartu behar dela adierazi dute. Beste alde batetik Barakaldoko udaletxeari, Hegoaldeko Tren Saihesbidearen inguruko lan-mahaia deitu dezala exijitu diote. Kontzentrazioaren bukaeran, Barakaldoko Naturalak datozen hilabeteetarako ekimen gehiago egongo direla iragarri dute eta sinadura bilketan parte hartzeko deia luzatu dute.